

Klima Aldaketa Hego Euskal Herrian

Zer gertatu da Parisko
Akordiotik?



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

Zer gertatu da COP30 Klimaren Goibileran?	4
Hego Euskal Herriko egoera zein da?.....	5
ELAren aldarrikapenak egoerari buelta emateko.....	8

Brasilen Nazio Batuen Erakundeko Klimaren Goibilera, COP30a, ospatu berri da. Munduko herrialde gehienak elkartzen diren nazioarteko negoziaketa marko honetan, hurrengo urteetan klima aldaketa geldiarazteko neurriak hartzea izan da helburua, beste behin ere.

Goibilera hasi aurretik Nazio Batuek mundu mailako berotegi efektuko emisioen datuak argitaratu zituzten, egoeraren larritasuna agerian utziz: 2024an 57,7 GtCO₂b (gigatona karbono dioxido baliokide) isuri ziren munduan. 2023an isuri ziren 56,3 GtCO₂b baino %2,3 gehiago. Aurreko hamarkadan urteko isurien batez bestekoa 53,3 GtCO₂b izan zen. Emisioek etengabe egiten dute gora. Isurien %73 erregai fosilen errekuntzak eragin du 2024an eta energia sorkuntzak emisioen %27a suposatu du.

G20ko herrialdeak dira isuri gehien eragin dituztenak, 35 GtCO₂b. Askok oraindik ez dituzte beraien emisio konpromisoak eguneratu eta NBEk aurreratu du ez direla 2030erako emisio murrizketa helburuak beteko, eta ondorioz, munduaren tenperatura igoerak 1,5°Cak gaindituko ditu.

1. Zer gertatu da COP30 Klimaren Goibileran?

COP30ean ez da ezustekorik izan. Erregai fosilak baztertzeko konpromisoak hartzea eta inor atzean utziko ez duen trantsizioa bultzatzea ziren COP30aren helburu nagusiak. Baina kale egin dute aurten ere.

Belem-en ospatu den goibilera historiako opakoena izan dela ere salatu dute bertan izan diren hainbat eragileek. Brasilgo presidentetzak ez ditu publiko egin negoziatzeko ari ziren testuak, beti egin ohi den bezala. Debate publikoa negoziaketetatik kanpo utzi nahi izan du eta ez da gai izan justizia klimatikoan aurrera egitea berrazken erabaki justu bat hartzeko, azken unean aldatu ezin zitekeen testu bakar bat aurkeztuz. Erregai fosilen aipamen faltagatik eta adaptazio neurrietan koherentzi faltagatik Kolonbia eta Panamak azken testuari betoa ezarri arren, Brasilgo presidentziak ezeko hauek kontuan hartu ez, eta gainera, testua onartutzat eman dute. Arabiar herrialdeen, Errusiaren eta interes berak dituzten beste herrialde batzuen presioagatik ez dira erregai fosilak aipatzen, baina herrialde Latinoamerikarren kexkak ordea ez dira kontuan izan.

Aurtengo helburua finantziario egokia, eta pertsonak eta ekosistemak erdigunean jarriko zituzten erregai fosilekin eta deforestazioarekin bukatzeko bideorriak zehaztea ziren. Hau ez da lortu, COP30ean adostutako testua oso kaskarra izan baita. Ez ditu erregai fosilak aipatu ere egiten. Eta finantziarioari dagokionez ihazko konpromiso berak ageri dira. Aurrerapenik ez beraz.

Eman den aurrerapen bakarra gizarte zibilak, sindikatuak barne, aurkeztu duen trantsizio justurako mekanismo berri bat onartzea izan da, BAM (Belém Action Mechanism) deiturikoa. Hala ere, mekanismo hau martxan jartzea gutxienez bi urtez atzeratuko da Europar Batasunak mekanismo hau onartzeko jarri duen blokeoagatik. BAM honek aurreko akordioak soilik aipatzen ditu soilik, lpar-Hego finantzaketan eta emisio murrizketetan neurri justu eta orekatuak hartzeko gaitasuna mugatua du eta hurrengo urteetan zehaztu beharko da gehiago.

Goibilera honetan aurrerapenak izango zirela aurreikusten zuten batzuk, planetaren tenperatura 1,5°Ctan mantentzeko behar diren neurriak eta orain arte harturikoen artean dagoen arrakala itxiko zela, baina oraingoan ere ez da hala izan. Mundu osoko gobernuak beraien interes propioak aurretik jarri dituzte pertsona guztion bizitzak arriskuan jarritz.

2. Hego Euskal Herriko egoera zein da?

Mundu mailako egoera hau izanik, Hego Euskal Herrian ere ez gaude egoera tamalgarri honetatik salbu. Emisioak ez dira behar beste gutxitzen, eta sektore batzuetan igotzen jarraitzen dute, klima aldaketari aurre egiteko helburua oso urrun utziz. Berotegi efektuko emisioen datuek baieztatzen dute.

2.1. Nafarroan


Nafarroako emisio datuen bilakaera oso kezkarria da. Gaur egungo emisioak 1990 urtekoekin (emisioen murrizketak kalkulatzeko urte oinarria) konparatzen baditugu, emisio zuzenek (lurraldean bertan ematen direnak, esportatzen den elektrizitatearen emisioak kontuak hartuta) %71 gora egin dutela ikus dezakegu. Datuak oso kezkarriak dira:

<i>CO₂-bk(t)</i>	1990	2005	2016	2019	2020	2021	2022
Elektrizitate sorkuntza	941.928	763.502	799.052	700.431	548.337	320.843	350.422
Industria	1.603.060	2.187.545	1.499.386	1.671.329	1.492.813	1728481	1.617.613
Garraioa	878.927	1.235.915	1.140.112	1.356.834	1.157.000	1.426.083	1.335.555
Etxebizitza eta zerbitzuak	396.734	814.627	683.317	528.927	482.644	585.608	469.169
Lehen sektorea	883.559	981.224	1.056.879	1.026.102	1.146.629	1.157.461	1.126.785
Hondakinak	143.438	203.780	190.864	194.658	166.094	169.662	174.471
Emisioak guztira	4.847.646	6.186.593	5.369.610	5.478.281	4.993.517	5.388.138	5.074.015
<i>Esportatutako elektrizitatea*</i>	-919.698	955.009	156103	926.045	737.277	1.446.887	1.662.342
Emisio zuzenak*	3.930.948	7.141.602	5.525.713	6.404.327	5.730.794	6.870.200	6.736.357


	1990=100	2005	2016	2019	2020	2021	2022
Emisioak guztira	100	128	111	113	103	112	105
Emisio zuzenak*	100	182	0	163	146	175	171

* Esportatutako elektrizitatearen emisioak kontuan izanda (Castejongo zentralenak)

Datuak sektoreka aztertzen baditugu, hauen bilakaera ere, aipagarria da:



Ez dago beherakada esanguratsurik sektoreetan. Emisio gehien isurtzen dituzten jardueren artean esportatutako elektrizitatearena (%25), industriarena (%24) eta garraioarena (%20) daude.



Garraioa eta industria emisio gehien dituzten sektore ekonomikoak izanik, mantendu egin dira beraien emisioak azken hiru hamarkadetan. Esportatutako energiarena ere aipatu beharrekoa da, nahiz eta sektore ekonomiko bat ez izan. Duela 20 urte martxan jarri ziren Castejongo ziklo konbinatuko zentralen emisioak izugarriak dira, Nafarroan gehin emititzen duen azpiegitura izanik, garraio guztiaren edo industria guztiaren parekoa izatera iritsi dira bere emisioak.

Parisko Akordioa (2015) sinatu eta murrizketa konpromiso garrantzitsuak hartu zirenetik hona gertatu dena aztertzen badugu ordea, egoera are larriagoa dela ikus dezakegu:

CO₂-bk(t)	2016	2016	2022	2022	2016-2022
Elektrizitate sorkuntza	799.052	%14,5	350.422	%5,2	%-56,1
Industria	1.499.386	%27,1	1.617.613	%24,0	%7,9
Garraioa	1.140.112	%20,6	1.335.555	%19,8	%17,1
Etxebizitzak eta zerbitzuak	683.317	%12,4	469.169	%7,0	%-31,3
Lehen sektorea	1.056.879	%19,1	1.126.785	%16,7	%6,6
Hondakinak	190.864	%3,5	174.471	%2,6	%-8,6
<i>Esportatutako elektrizitatea</i>	<i>156.103</i>	<i>%2,8</i>	<i>1.662.342</i>	<i>%24,7</i>	<i>%964,9</i>
Emisio zuzenak	5.525.713	100	6.736.357	100	21,9


Garraio sektorearen etengabeko gorakada izan du azken urteetan. Garraioa batez ere petrolioaren erabilera dago oinarritua eta mugikortasun eredu fosila ez da aldatu azken 10 urteetan. Bestalde, Nafarroan kontsumitzen den energiari dagozkion emisioak jaisten joan diren bitartean, Castejongo ziklo konbinatuko zentraletan gas naturalarekin sortzen den elektrizitateari dagozkion emisioak etengabe egin dute gora, 2016-2022 bitartean %964,9 igo dira.

Parisko Akordioaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeek emisioak %30 murriztu behar dituzte 2030erako 1990 urteko emisioak oinarri hartuta. Nafarroan ordea, emisioek %21,9ko hazkundea izan dute Parisko konpromisoak sinatu zirenetik, datuek erakusten dute ez dela neurri eraginkorrik hartu. Esan beharrik ez dago 2030erako %30eko murrizketa konpromisoak ez direla beteko, 1990etik %71ko igoera izan baitute.


2.2. EAE

EAEko berotegi efektuko emisio datuen azterketak ondorio esanguratsuak erakusten dituzte egungo emisioak 1990 oinarri urtearekin alderatzen baditugu. Emisioak guztira %22 jaitsi diren arren, errealitatea ez da berdina sektoreka aztertzen baduru.

CO₂-bk(t)	1990	2015	2017	2019	2021	2023
Energia eraldatzea	2.754.734	2.635.408	2.582.739	2.427.468	2.239.863	2.090.470
Industria	10.854.980	6.111.497	5.965.320	5.460.366	5.291.805	4.640.071
Garraioa	2.847.092	5.889.174	6.549.394	6.399.162	6.077.134	6.134.547
Egoitza	1.506.323	1.546.460	1.532.137	1.485.634	1.432.991	1.090.188
Zerbitzuak	677.237	1.458.703	1.400.591	1.296.242	1.093.711	955.150
Nekazaritza	1.027.373	853.849	826.555	714.278	725.309	624.568
Hondakinak	1.088.316	972.406	881.604	816.234	746.430	658.885
Guztira	20.756.056	19.467.498	19.738.340	18.599.385	17.607.243	16.193.878
1990=100	100	93,8	95,1	89,6	84,8	78



Beherakada esanguratsuenak Industriak jasan du, eta garraioak ordea igoera handia izan du. Gaur egun hauek biak dira emisio gehien isurtzen dituzten sektoreak beste guztien oso gainetik: garraioak (%38) eta industriak (%29).



Garraioaren kasuan, energia fosilean oinarrituta egonik eta ekonomia gero eta globalizatuagoa izanik, azken hiru hamarkadetan garraioaren emisioak %215,5 igo dira.

Parisko Akordioa (2015) sinatu eta murrizketa konpromiso garrantzitsuak hartu zirenetik hona gertatu dena aztertzen badugu ordea, egoera are larriagoa dela ikus dezakegu:

Isurketen iturria EAE	2015	2023	2015-2023 (%)
Energia-eraldatzea	2.635.408	2.090.470	%-20,7
Industria	6.111.497	4.640.071	%-24,1
Garraioa	5.889.174	6.134.547	%4,2

Egoitza	1.546.460	1.090.188	%-29,5
Zerbitzuak	1.458.703	955.150	%-34,5
Nekazaritza	853.849	624.568	%-26,9
Hondakinak	972.406	658.885	%-32,2
Guztira	19.467.498	16.193.878	%-16,8

Parisko Akordioaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeek emisioak %30 murriztu behar dituzte 2030erako. EAEn emisioen murrizketa %16koa izan da Parisko Akordioa sinatu zenetik, ez da isuriaren murrizketa azkartu konpromiso hauek hartu ondoren. Adostutakoa betetzetik urrun dago baita: %40ko murrizketa 2030erako 1990eko emisioekin alderatuta, %22ko murrizketa izan baita 1990etik. Ez da 2030erako konpromisoa beteko sektore klabeetan, garraioan eta industrian, eraldaketa sakonik ematen ez bada.

3. ELAren aldarrikapenak egoerari buelta emateko

Datu hauek ikusita egoeraren urgentzia begi bistakoa da, baita neurriak hartzeko beharra ere. EAEko eta Nafarroako gobernuak ez dira egoerak behar dituen politika publikoak bultzatzen ari, sarritan gainera kontrako norabidean doazen neurriak hartzen dituzte. Planetaren 1,5°Cko beroketa mugatik oso urrun gaude. Egoera honen aurrean Hego Euskal Herriko gobernuak propaganda egiten jarraitzen dute. Ez dute kolokan jartzen egoera honetara garamatzan garapen eredua eta ez dute sistema eraldatzeko neurri eraginkorrik hartzen. ELAn argi dugu deskarbonizazioa eta honi loturiko trantsizio ekosoziala direla alternatiba bakarra eta horregatik ondorengo neurriak hartzea exijitzen diegu:

- Globalizazioak eta internazionalizazioak ekarri duen gehiegizko mugikortasuna eta honen ondorioak saihesteko ezinbestekoa da ekonomia birkokatzea. Ekonomia gertukoa eta zirkularra izan behar da, material eta energia berriztagarriekin funtzionatuko duena. Ekoizpen eredua eraldatu eta dibertsifikatu behar da.
- Garraio sistema eraldatzea ezinbestekoa da. Energia fosilean oinarrituriko ibilgailu pribatuak alde batera utzi eta garraio publiko kolektiboa da bultzatu beharreko garraio eredua. Ez da nahikoa izango ibilgailuen elektrifikazioa, merkantzien mugikortasuna murriztu eta pertsonen mugikortasuna garraio publiko eta kolektiboan oinarritzea beharrezkoak dira.
- Herrien arteko komunikazioa hobetu. Horretarako, behar beharrezkoa da autobus eta tren zerbitzu eraginkorrak izatea, energia berriztagarriak erabiliko dituztenak eta pertsonen beharrei erantzungo dietenak. Garraio publiko sarea herrialde osoan zabaltzea, maiztasunak handitu, gabeziak zuzendu eta dohakotasuna ezarri behar da.
- Abiadura Handiko Trena bezalako azpiegiturak ez dute zentzurik eredu honetan, trenbide sare publiko eta soziala da bultzatu. Pertsonen eta merkantzien garraiorako egungo trenbide sarea egokitu behar da.
- Energia sektorea publikatu, benetan berriztagarriak diren energiak garatu eta egungo energia fosilen ekoizpena geldiarazi. Politika publikoek trantsizio eredu honen aldeko hautu argia egin behar dute.
- Kontsumo energetikoa modu esanguratsuan murriztu, efizientzia energetikoa hobetu eta modu arduratsuan energia berriztagarria sortzea. Bultzatu behar den eredu energetikoa

azpiegitura handietatik urrundu eta diseinu deszentralizatu batean oinarritu behar da. Autokontsumoak pisu handiagoa izan behar du.

- Industriako hainbat azpisektore birdimentsionatu, energia eta materialetan duten gehiegizko kontsumoagatik edo duten berotegi efektuko gasen emisio handiengatik. Enpresetan emisio murrizketa planak legez exijitu: emisioak murriztu, hondakinak gutxitu, energia fosilen erabilera gutxitu eta berriztagarrien erabilera areagotu.
- Beste sektore batzuk garatu industriaren eraldaketak dakarren enplegu galerari aurre egiteko, enplegu jasagarriak sortuz berriztagarrietan, garraio kolektiboan, elikadura burujabetzan edo hondakinen kudeaketa iraunkorrean esaterako.
- Ondare naturalaren kontserbazioa, basogintza iraunkorra eta nekazaritza erregeneratiboa bultzatu behar dira, CO₂a xurgatzeko jarduerak onenak direlako. Gainera, elikadura burujabetza, agroekologia eta basogintza iraunkorra ezinbesteko sektoreak izango dira etorkizuneko ekonomian, ingurumena babesteaz gain, ekonomia birkokatzeko eta osasuna, ingurumena eta azken batean, bizitza erdigunean jartzeko tresna paregabeak direlako.
- Neurri guzti hauek finantzatzeko eta kontrako norabidean doazenak galerazteko fiskalitate "berdea" ezinbestekoa izango da.

Hego Euskal Herriko politika publikoetan ez dugu eredu aldaketarik ikusten. Enpresa pribatuek bultzaturiko proiektu eta azpiegitura handiak dira egunero bultzatzen dituztenak, eredu suntsitzaile hau iraunarazten dutenak. ELAk ez du utziko trantsizio haue langileen kontura modu bidegabean aurrera eraman dezaten. Egoera honetan behar duguna benetako trantsizio ekosozial bat da, planeta eta pertsonak babestuko dituen, langileon eta gizartearen mesederako egingo dena eta ez interes ekonomikoen mesederako. Bizitzak erdigunean jarriko dituen trantsizioa.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA